

Astigarraga beste behin sagardogintzan murgilduta

► Azoka, erakustaldiak, sagardo dastaketak eta jai giroa batu dira bosgarren urtez Sagar Uztan

Dolareak lanean hasiak direla ospatzeko V. Sagar Uzta hartu zuen atzo Astigarragak. Herri horretako Sagardun Patzuegoak antolatutako jalan azoka eta sagardogintzaren nondik norakoak ezagutzeko erakustaldiez gozatzeko parada izan zuten bertaratutakoek, bai eta sagardo basokada batez zintzurra freskatzeko okasioa ere.

M.E

ASTIGARRAGA

Dagoeneko makina bat sagastitan hasiak dira, saskia eskuan, eta eskuz edota kizkiarekin sagarrondoetako fruitua batzen. Zortedunak horiek; uda honetan egindako eguraldi nahasia tarteko, sagarrak gabe geratu diren sagarzialeak ere badira eta.

Dolareak sagarrari zukua ateratzen hasiak direlako, hain justu ere, antolatu du Astigarragako Sagardun patzuegoak V. Sagar Uzta asteburuan, eta jendeak ez du huts egin.

Atzokoa egun handia zen, goizean goizetik hasi zen sagarren festa Gipuzkoako herri honetan. Sagardogintzaren mundua ezezagun zuenak ikastaro azkarra jasotzeko modua izan zuen atzo Astigarragara bertaratuta. Sagarrondoen txertogintza, otarragintza, kupelgintza eta lehen sagar muztioa egiteko prozesuaren nondik norakoak erakutsi zituzten eta ikasle finak izan ziren. «Jendeak arretaz jarraitu ditu azalpenak eta galdera ugari egin ditu», adierazi zuen patzuegoko kide Jose Mari Alberrok. Goizean goize-rako antolatutako desfilea euriak zertxobait zaputu bazuen ere, gustura ziren antolatzaileak, urtetik urtera erantzun bikaina jasotzen baitu jaiak, eta tartean, batez ere sagardo dastaketak eta sagar azokak. «Urterokoak badira ere, jendeak erantzun ona ematen die beti, erakustaldiei belazaxe».



Jende mordoxxa bildu zen lehen sagar muztioak zer nolako itxura eta zaporea zuen lehen eskutik ikustera. Gozoa eta edanerraza; tamainan edan beharrekoa omen. Zintzurra ondo busti nahi zuenak, beraz, iazko sagardoari heldu zion azkar; eskarmetudunak ziren horiek. Sagardoa baino, sagarrak bere horretan edota erreta jatea gustuko dutenek, berriz, ale bakarren batzuk etxeratzeko okasioa izan zuten.

ARGAZKIAK: Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



ESCUELA OFICIAL
DE IDIOMAS
DE PAMPLONA
IRUÑEKO
HIZKUNTZA
ESKOLA OFIZIALA

26 de septiembre
día europeo
de las lenguas

Irailaren 26a,
hizkuntzen
egun europarra



monocolor
monolítico
monoteísta
monólogo
monopolio
monótono
monolingüe...